



Belartegia

6

Azalpena eta oharrak

Lehen mailako eskolako programa ofizialek diotenez : "landarediari dagozkion fenomenoek ezaugarriak kartsuki behatu behar zaie eta ikertu behar dira". Helburu horri jarraikiz heldu da belartegi baten osatzeko xedea.

Belartegia zertako ?

Belartegiak landareen edota zuhaitzen sailkatzeko eta kontserbatzeko teknika eraginkorra izatea du helburu.

Belartegiaren egitea proiektu pedagogiko baten azken urratsa izan daiteke edo berdin artekoa.

Azpi proiektu osagai eta iraunkor gisa ere har dezakegu (adibidez ikasturte bat edo bizpahiru iraunen duena). "Urraskako belartegia" deituko dugu.

Hots, irakasleari dagokio neurtzea noiz eta nola behar duen belartegia eraiki ikasleekin.

Fitxa honetan informazio tekniko batzuk aurkituko dituzu belartegiaren muntaiaz, muntaia bera xede pedagogiko batzuetan oinarrituz.

Definizio batzuk

Belartegia zer da ?

Landare idortuak paper orrien artean edo plastikozko poltsa batean ezartzen dira. Airetik begiratzeko, plastikozko poltsak airez hustua izan behar du. Gisa horretan landareak luzaz kontserba daitezke eta botanika saileko dokumentu mota hauek noiznahi balia behatzeko eta ikertzeko.

Urraskako belartegia

Haurrek ikasbidearen urrats batean eraikitzen duten belartegi iraunkorra. Urte batez edo berdin bizpahiru urtez ikasleak bakarka edo taldean belartegi baten osatzen ariko dira, hasierako ohar eta behaketak ondoko urteetan osatuz, zehaztuz eta ondorioztatuz.

Nondik has

Galdea : landare edo hosto multzo bat badugu bildurik eta ikerketa hasi aitzin nola egin hauen kontserbatzeko.

Zuhaitzez ikaslan bat hasia dugu eta mota edo espezie bakoitzarentzat ezaugarri-fitxa egin nahi dugu, bakoitzaren fruitua, hostoak, etab. azalduz.

Landareen inguruko ikerlana bukatua dugu eta erakusketa bat egin gogo.

Landare eta zuhaitzen ezagutza ikas-ziklo osoan (bizpahiru urtez) egitea programatu dugu eta urraskako belartegia gauzatu nahi. Horrek erran nahi du hiru urtez egin oharrak eta gogoetak kontuan hartuko ditugula.

Jarduera batzuk



6/1

6/2

6/3

ikaslearen fitxak

Jakintasunak

Muntaia-fitxa bat ulertu.

Muntaia-fitxa bat sortu eta idatzi.

Oharren sailkatzen ikasi.

Urtetik urtera lanaren haria atxikitzen ikasi. Oharren eta haien ondorioen begiratzeko ikasi.

Bilketa oihanean nola egin ?**bilketa aitzin**

Ibilaldi bat egin aitzin, orri bat eta axota har, bai eta zuhaitzei buruzko liburuxka bat, egunkari papera eta plastikozko poltsa bat.

bilketa bera

- Zuhaitz edo zuhaixka bakoitzaren hostoak, fruituak, azal puskak bilduko dituzu.
- Larrazkenean edo neguan egiten baduzu ibilaldia, begiak (edo ninika) dituen aldaxka bat bil ezazu.
- Hostoak bilduz bezala, bi egunkari orriren artean bederazka ezar itzazu.
(Egunkari papera egokia duzu zuhaitz hostoen ura xurgatzen baitu).
- Beste mozkinak poltsan sartuko dituzu (fruituak, aldaxkak...).
- Zuhaitzak ez dituzu fundituko edo andeatuko. Beharrezkoak baizik ez bil !
- Zuhaitz baten aitzinean eman zaitez eta haren itxura marraz ezazu.
- Zure orrian bilketa noiz eta non egina duzun idatz, beharrez ohar batzuekin.

Belartegia nola egin (1. proposamena)

Aitzin lana


Oihaneko ibilaldi baten ondotik, egunkari orrien artean zuhaitz hostoak ezarri dituzu ongi idor daitezen. Lan hori liburu meta edo hiztegi baten azpian ezarriko duzu eta horrela atxikiko zenbait egunez. Hostoek ongi idortu behar dute.

Prentsaren muntaia

- Zurezko taula batean bi taulatxo motz itzazu (30 x 50 cm).
- Bi taulatxoetan, abisendako ziloak egizkizu, lau angeluetan taula aldearen beste pasatuz.
- Zuhaitz hosto bakoitza bi egunkari orriren artean ezarrazu.
- Beste hostoentzat berdin egizu.
- Denak meta batean ezar.
- Meta bi taulatxoaren artean emazu.
- Lau abisa luze euli-hegal burudun har.
- Bi taulatxoak elkarri lot lau abisen bidez.
- Prentsa abisez tinka, ainerik ez dadin geldi artean.
- Zenbait egunez utz idortzera.

Materiala


- 50 x 60 cm-ko taula
- egunkari orri batzuk
- 4 abisa luze euli-hegal burudun
- teatulua edo birabarkia
- eskuzerra
- zilagailua



Belartegia nola egin (2. proposamena)

Materiala

- Sailkatzaile bat
- Plastikozko poltsa zilodunak
- 21 x 29.7 cm izariko orri zuriak



Muntaia

- Eredu honen arabera fitxa bat eraiki.
- Fitxa bakoitza bere poltsan sar eta ondotik poltsak sailkatu.
- Gisa berean joka zuhaitz bakoitzarentzat.

Oharrak

Landareak eta hostoak idortu gabe kontserba daitezke fitxa gogor baten gainean ezarriz eta zinta garden eta itsaskorrez estaliz.